3 HONDARTZAK XXX. GRUPO DELTA KROSSA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

ELKARREKIN IBILIZ fundazioak, Donostiako Jakintza Atletismo Klubaren eta Bidasoa Atletiko Taldearen zuzendaritza teknikoarekin **Donostiako 3 Hondartzak Krosaren 30. edizioa** antolatu dute urriaren 13rako, goizeko 10:00etan. Era honetako proba batean babesle nagusiaren, Grupo Delta, inplikazioa eskertu nahi dugu.

Bi motatako lasterketak egongo dira: Haurrentzako lasterketak Ondarretako hondartzaren inguruan eta 10 kilometroetako lasterketa herrikoia Donostiko 3 hondartzak batzen dituenak. Frogak 10 kilometro zehatzeko distantzian lehiatuko da donostiako Antiguoko Auzoan, Ondarreta inguruan, irteera eta helmuga izanda.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitatea kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez. Parte hartzeko gutxiengo adina: 16 urte.

Parte hartzaile kopurua gehienez **2500ekoa** izango da.

Lasterketari bakoitzak bere erantzukizunpean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

3. ARTIKULUA – LASTERKETAREN ORDUTEGIA ETA GEHIENEZKO DENBORA

Irteera goizeko 10etan emango da eta ordu 1 eta 30 minuto izango dituzue gehienez froga betetzeko.

4. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK

Izen-ematea on-line zabalduko da www.rockthesport.com eta www.kirolprobak.com -en maiatzaren 30ean eta urriaren 12an itxiko da (20:00h). Urriaren 1 baino lehen eginiko izen-emateek dortsala izenarekin pertsonifikatuta jasoko dute. Nolanahi ere, izen-emateko prozesua itxi egingo da korrikalarien gehienezko kopurura (2500) iristean. **Proba egingo den egun berean irteeran izen-emateko aukerarik ez dago.**

Zuzenean bertara joanda izena eman nahi dutenentzat, 2 saltoki dauzkagu: Donostian, Robers dendan (Larramendi kalea, 10) eta Irunen, Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoan (Leandro Agirretxe plaza, 1-2.a, 8. bulegoa, Palmera Montero eraikina). Dendan egiten diren izen-emateak urriaren 8an, asteartea, itxiko dira.

Dendan izena eman ahal izango da 2019ko irailaren 1etik aurrera.

Izen-emateko prezioa desberdina da zein garaitan egiten den kontuan hartuta, era honetan banatuz:

- **10 €** - izena ematen duten lehenengo 100 ek.
- **12 €** - 2019/08/31 baino lehen izena eman dutenek
- **13.50 €** - 2019/09/01 eta 2019/09/30 bitartean izena eman dutenek
- **15 €** - 2019/10/01 eta 2019/10/11 bitartean izena eman dutenek
- **20 € -** azkeneko egunean edo korrikalarien azokan egineko izen emateak, 2019/10/12

Itzulketak: Korrikalariaren titularitate aldaketa egin ahal izango da 2019/10/01 arte, eta 2019/10/02tik aurrera ezingo da inolako aldaketarik egin. Dirua ez da itzuliko medikuaren baja aurkezten ez bada.

5. ARTIKULUA – EURO SOLIDARIOA

Euro solidario bat gehitzeko aukera dago izen-ematean. Aurtengo edizioan, osorik, Minbiziaren aurkako Gipuzkoako Elkartearentzat (AECC) izango da, Ignacio Melero doktorearen inmunoterapiaren ikerketa proiekturako. 2019an 160.000 euro lortzeko erronka daukagu.

6. ARTIKULUA - KORRIKALARIEN POLTSA JASOTZEA

Urriaren 9a, asteazkena, baino lehen (20h) eginiko izen-emate guztientzat korrikalariaren poltsa **Robers kirol dendan (Larramendi kalea, 10)** jaso ahal izango da ondorengo egun eta orduetan:

URRIAK 10, OSTEGUNA: 10.00 - 13.00 ETA 16.00 - 20.00
URRIAK 11, OSTIRALA: 10.00 - 13.00 ETA 16.00 - 20.00
URRIAK 12, LARUNBATA: 10.00 - 13.00 ETA 16.00 - 20.00

Korrikalariaren poltsa jasotzeko NAN agiria aurkeztu beharko da derrigorrez.

Azken orduko izen-emateetan eta aurrez jaso gabeko dortsalen kasuan, lasterketa egunean bertan jasoko dira irteera lekuan, goizeko 08.00etatik 09.30etara bitartean.

7. ARTIKULUA – KORRIKALARIEN POLTSA

Korrikalariaren poltsak, korrikalari guztientzat, ondorengoa eramango du: dortsal-txipa (dortsala izenarekin pertsonalizatua 2019/10/01 baino lehen izena ematen dutenentzat), orratzak, lasterketako kamiseta tekniko bat (*), kolaboratzaileen eskaintza desberdinak, lasterketa eta zerbitzuen mapak, kontsignako eskumuturrekoa, etab.

(*) urriaren 7a, astelehena, baino lehen egindako izen emateak eskatutako kamiseta neurria izango dute, beranduago egindako izen emateak stockaren arabera.

8. ARTIKULUA - SARIAK

1. gizonezko eta emakumezko Absolutua: Txapela + Garaikurra + Robers erosketa balea 200€
2. gizonezko eta emakumezko Absolutua: Garaikurra + Robers erosketa balea 100€
3. gizonezko eta emakumezko Absolutua: Garaikurra + Robers erosketa balea 50€

1. gizonezko eta emakumezko beterano A mailan (35 - 49 urte): Garaikurra + La Perlako balea.
1. gizonezkoa eta emakumezkoa beterano B mailan (50 urte baino gehiago): Garaikurra + La Perlako balea.

9. ARTIKULUA – KONTSIGNA ETA DUTXA ZERBITZUA

Arroparentzako kontsigna zerbitzu bat egongo da Ondarretako Tenis Klubean, lasterketaren irteera eta helmugatik oso gertu.

Parte hartzaileek dutxa eta aldagela zerbitzua eskura izango dute Benta Berri eta Pio Baroja kiroldegietan. Probako dortsala aurkeztuta erabili ahal izango dira.

10. ARTIKULUA – DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIA

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiek derrigorrez alfonbretatik pasa beharko dute.
Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
- Beste lasterkari batena den dortsal - txipa daramatenak.
- Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala ez daramatenak.
- Helmugan dortsalik gabe sartzen direnak.
- Epaileen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dienak.
- Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo

11. ARTIKULUA – PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

12. ARTIKULUA – MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar eta helmugan mediku laguntza egongo da.
Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

13. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, inskripzioa egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Elkarrekin Ibiliz Fundazioa (G-75170555) eta Bidasoa Atletiko Taldeak (G-20160859), bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, inskripzioa egin dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Elarrekin Ibiliz Fundazioak (Zuatzo parke enpresariala, Urgull eraikina, 1. solairua, 3. Lokala) edo Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behea, atzealdea. 20304 Irun). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.